

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Zestoako Udala

Ayuntamiento de Zestoa

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua eta Kontabilitatea.....	10
III.2 Zerga sarrerak.....	10
III.3 Langileria.....	10
III.4 Emandako transferentiza eta dirulaguntzak	11
III.5 Kontratazioa.....	11
III.6 Beste batzuk.....	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA	13
V. URTEKO KONTUAK	17
ERANSKINAK	21
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	21
A.2 Aurrekontua eta Kontaibilitatea	21
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	22
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	23
A.5 Langileria-gastuak.....	24
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	25
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	26
A.8 Inbertsio errealak eta aktibo ez arrunta.....	27
A.9 Zorpetzea	27
A.10 Zordunak eta aktibo korronteko beste kontu-sail batzuk	28
A.11 Hartzekodunak	29
A.12 Diruzaintza	29
A.13 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	30
A.14 Kontratazioaren analisia.....	31
ALEGAZIOAK	33



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	35
I. INTRODUCCIÓN.....	37
II. OPINIÓN.....	38
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	38
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	39
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	40
III.1 Presupuesto y contabilidad	40
III.2 Ingresos fiscales	40
III.3 Personal.....	40
III.4 Transferencias y subvenciones concedidas	41
III.5 Contratación	41
III.6 Otro	42
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	43
V. CUENTAS ANUALES	46
ANEXOS	49
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	49
A.2 Presupuesto y contabilidad	49
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	50
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	51
A.5 Gastos de personal	52
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	53
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	54
A.8 Inversiones reales y activo no corriente	55
A.9 Endeudamiento	56
A.10 Deudores y otras partidas de activo corriente.....	56
A.11 Acreedores	57
A.12 Tesorería.....	57
A.13 Actuaciones urbanísticas y planeamiento.....	57
A.14 Análisis de contratación	59
ALEGACIONES	61

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 28a
Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2019



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AO	Administrazio Orokorra.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua.
XG	Xedapen Gehigarria.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
EFPL	6/1989 Legea, uztailearen 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
1/2013 FA	1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
AASS	Arau Subsidiarioak.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
BPG	Barne Produktu Gordina.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
UEMA	Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Zestoako Udalaren 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren aurrekontuaren likidazioa, balantzea, ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua eta oroitidazkia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Zestoako udalerriak 3.713 biztanle zituen 2017ko urtarrilaren 1ean eta honako hauen kide da: Urola Erdiko Mankomunitatea (Hiri Hondakin Solidoen kudeaketa), Gipuzkoako Uren Partzuergoa (bideraketa sareko hornidura eta saneamendua) eta UEMA (euskalduntzea).

Urola-kostako Landa Garapenerako Elkartean (URKOME) ere partaide da eta Ekain Fundazioaren patroiz fundatzaile ere bada.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1. 35.937 euroren zenbatekoan esleitutako kontratu bat (2. espedientea A.14an) publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta izapidetu zen; ordea, kontratuaren balio zenbatetsia aintzat hartuta, publikotasuna eman behar zitzaiokeen lizitazioari (SPKLTBren 177. artikulua). Kontratuaren xedea, gainera, eraginpeko administrazio-unitateko plantilla organikokoak diren lanpostuen euren egitekoak ziren eta esleipenduna egiteko horiek 2014az geroztik ari zen betetzen, lehenagoko kontratu baten indarrez.
2. Kiroldedia berri eta handitzeko obren zuzendaritza teknikoa eta obra zuzendaritza bera bereizirik lizitatu eta kontratatu ziren, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez, hurrenez hurren 44.528 euroren eta 48.098 euroren zenbatekoan. Bereizirik erabili edo ustiatzerik ez dagoenez gero, bi prestazioak batera kontratatu behar ziratekeen eta ezinezkoa da publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetzea (SPKLTBren 86.3 artikulua).

Epaitegi honen ustetan, Zestoako Udalak, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2017ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera jasotzen duten, ezargarriak zaizkien balorazio-printzipio eta -arauei jarraikiz (ikus A.8).
2. Udalak ez du oroitidazkian Udalaren Kontuetan eragina izan dezakeen kontingentzia baten berri ematen, 1999 eta 2000ko urteen artean izenpetutako hiru hitzarmeni dagokienez jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsio batetik eratorria (ikus A.13).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Zestoako Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, legedian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2016ko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, 21/2003 FAren 15.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Udalaren aurrekontu plantillak ez ditu kreditu zuzkidurak oinarritzko ordainsari, lanpostu mailako osagarri eta berariazko osagarriaren arabera antolaturik zerrendatzen (EFPren 21. artikulua).
- 2017ko ekitaldian gastuaren araua urratu zen, nahiz ez-betetze hori gertatu zen diruzaintza geldikina erabili izanaren ondorioz eta honenbestez, ekonomia-finantza plan bat formulatu beharrean nahikoa zitekeen Udalbatzari jakinaraztea, 1/2013 FAren 5.3 artikulua aurreikusten duen legez. Udalak egindako kalkuluen arabera, gastu zenbagarriaren bariazioak ez zuenez erreferentzia tasa gainditzen, ez zen jakinarazpenik egin.
- Udalak ez ditu ekitaldiko emaitza kalkulatzeko aintzat hartu finantzaketako desbideratzeak eta Gastu orokorretarako diruzaintza geldikin bidez finantzatutako gastuak, hurrenez hurren, 122.360 euro eta 407.727 euro; horiek aintzat hartzeak aipatutako magnitudea 285.368 euroan gehituko luke.

III.2 ZERGA-SARRERAK

- Udalak ez dizkie zergapekoei berandutza interesak likidatzen epez kanpo egindako ordainketengatik, GLHko martxoaren 8ko Zergen 2/2005 Foru Arau Orokorraren 26. artikulua xedatutakoa urratuz.
- Halaber, ez da berandutze interesik aplikatzen zerga zorrak geroratu eta zatikatzen direnean, izan ere isilean ematen dira horretarako eskumena duen atalak onartu gabe.

III.3 LANGILERIA

- Udalbatzak 2015eko ekainaren 30ean egindako bilkuran onartu zituen dedikazio eskusiboa edo partziala zuten karguak betetzen zituztenei ordaindu beharreko ordainsariak. Gerora, zenbateko horiei aplikatu zaizkie Udalaren zerbitzura diharduten langileentzat onartutako ordainsari igoerak, horren gaineko erabakirik hartu denik jaso ez dela.
- Udalak ez dizkio Gipuzkoako Foru Ogasunari aitortzen saioetara joategatiko sari kontzeptuan zinegotziek jasotako ordainsariak; guztira, 2017ko ekitaldian, 4.453 euro egin dute.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Idazkaritza bigarren mailako modura sailkatua duten udaletan Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzako bi postu bereizi izan behar dira, nazio mailan jarduteko gaituta dauden toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeak eta gainera, Diruzaintza izeneko lanpostu bat existitu behar da. Udalaren Lanpostu zerrendak Idazkari-kontu-hartzailearen lanpostu bakarra besarkatzen du eta ez du Diruzaintzakoa aurreikusten.
- Udalaren Lanpostu zerrendak ez du lanpostu bakoitzari esleitutako berariazko osagarria adierazten (EFPLren 15.2 artikulua).
- 2017an Udalak aldi baterako bi langile kontratatu zituen hautatzeko prozedurarik egin izana jaso gabe dagoela.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Udalak ez du dirulaguntzen plan estrategikorik, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituena.
- Ez da betetzen informazioa emateko obligazioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20. artikulua arautzen duena

III.5 KONTRATAZIOA

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak finkatu, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege lege-dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.

Kontratazio espedienteak (ikus A.14)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden lau kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- Aztertutako espediente guztietan udal Idazkari Kontu-hartzaileak Kontratazio-mahaiari idazkari lanak egiten ditu eta ez bokal lanak, boto eskubiderik izan gabe (SPKLTBren 2.10. xedapen gehigarria).
- 1,6 milioi euroan esleitutako kontratu baten BABAn (A.14an 1. espediente) honako ohar hauek azaleratu ditugu:
 - Ez da adierazi esleipendunak ezargarria den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzeko betebeharra (apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.3 artikulua, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk jasotzeko dena).
 - Eskaintzak balioztatzeko irizpide modura jaso da Zestoako langabetuak kontratatzea, % 5eko haztaperarekin. Irizpide hori ez zaio zuzenean lotzen kontratuaren xedeari (SPKLTBren 150. artikulua) eta gainera, herritarra izateko eskakizunak urratu egiten du kontratazio publikoan buru egin behar duen ez-bazterkeria printzipioa.



- Zuzenean baztertzen dira prezioa % 20 edo gehiago beheratzen duten eskaintzak, SPKLTBren 152.3 artikulua aurreikusten duen entzunaldiaren tramitea saihestuta, nahiz azkenean ez den lehiatzailerik baztertu.
- Adierazitako kontratua gauzatzeko epea amaitu ostean, luzapenik batere egin gabe, kontratu-aldaketa bat onartu zen, prezioa % 10 igotzea eragin zuena.

III.6 BESTE BATZUK

Ondarea eta ondasun-zerrenda

Udalak ez du Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasun eta baliabideen zerrendarik (Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 112.3 artikulua).

Gardentasuna

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, urteko kontuak, aurrekontuaren egonkortasunaren eta finantzaren jasagarritasunaren helburuak betetzeari buruzko informazioa eta dedikazioa duten udal-kideen ordainsariei buruzko informazioa.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015	2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	2.287	2.521	2.606	616	675	702
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	2.528	2.568	2.739	681	688	738
Ondare sarrerak (5. kap.)	14	24	3	3	6	-
A. Diru-sarrera arruntak	4.829	5.113	5.348	1.300	1.369	1.440
Langileria gastuak (1. kap.)	1.685	1.756	1.750	454	470	471
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.)	1.514	1.591	1.337	408	426	360
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	746	777	1.145	201	208	308
B. Funtzionamendu gastuak.....	3.945	4.124	4.232	1.063	1.104	1.139
Aurrezki gordina (A-B).....	884	989	1.116	237	265	301
- Finantza gastuak (3. kap.).....	5	3	6	1	1	2
Emaitza arrunta.....	879	986	1.110	236	264	299
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	217	217	179	58	58	48
Aurrezki garbia	662	769	931	178	206	251
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	-	1	-	-	-
Jasotako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.)	10	97	232	3	26	63
- Inbertsio errealak (6. kap.)	627	525	694	169	140	187
- Emandako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.).....	129	126	141	35	34	38
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(746)	(554)	(602)	(201)	(148)	(162)
Eragiketa ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)	133	432	508	35	116	137
Diruzaintza Geldikina	1.520	1.741	2.075	409	466	559
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	1.227	1.442	1.862	330	386	501
Zorpetzea.....	735	518	339	198	139	91

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 11 igo dira aztertutako aldiran. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek % 10 egin dute gora 2016ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean, eta beste % 3, 2017an; horrek aztertutako aldiran % 14 inguruko igoera izatea ekarri du. EIOZ kontzeptuan aitortutako diru-sarreraren eragina kentzen badugu, bilakaera antzekoa da baina zertxobait handiagoa, igoera % 16 inguru izanik. Hona hemen bariazio adierazgarrienak:
 - **Zerga zuzenak:** % 9 egin dute gora aztertutako aldiran, batik bat OHZ eta JEZ kontzeptuan aitortutako eskubideek izan duten bilakaeraren ondorioz. Azken zerga honi dagokionez, igoera 2017an izan da, ekitaldi honetan zergaren likidazioak izan zuen saldoaren ondorioz. OHZan berriz, igoera nagusia 2016ko ekitaldian gertatu da, alta berriek eta diru-bilketa exekutiboak eraginda.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- **Tasak eta bestelako sarrerak:** % 23 egin zuten gora aztertutako aldian, nagusiki 2017ko ekitaldian, izan ere kapitulu honetan erregistratu da aipatutako ekitaldian 189.716 euroren ezohiko diru-sarrera (ikus A.3). Igoera hau bultzatu dute, berebat, nahiz hein txikiagoan izan, etxez etxeko bilketa-tasak eta hiri-hondakin solidoak desegiteko tasak eragindako sarrerek.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Sarrera hauek % 8 egin dute gora aztertutako aldian, Udal Finantzaketakarako Foru Funtsetik eratorritako zerga itunduen kontzeptuan aitortutako sarrerek izan duten antzeko igoera, aintzat hartutako hiru ekitaldietan kapituluko sarrera guztien gainean % 86 baino gehiago egin dutenak.

Funtzionamendu-gastuak: % 7 egin dute gora aztertutako aldian eta igoera hori sarrera arruntek izandakoa baino txikiagoa da. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** 2016an gastu hauek % 4 egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero eta ehuneko hau bat dator aztertutako aldian magnitudeak izan duen bariazio osoarekin, 2017an gastua ez baita ia batere aldatu.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** Aurrekontuko kapitulu honetan gastuak % 12 egin du behera aztergai izan den aldian, nahiz beheraldi honen arrazoia den eguneko zentroari eta tutoretzapeko etxebizitzetara dagozkien gastuak Transferentzia eta dirulaguntza arruntak kapitulura aldatu izana (ikus A.7). Aipatu birsailkapenaren eragina kenduz gero, kapitulu honetako gastuak % 7 egin du gora 2016an aurreko ekitaldiaren aldean eta 2017an gastu maila horri bere horretan eutsi zaio.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Kontzeptu honek eragindako gastuek % 54 inguru egin dute gora aztertutako aldian eta igoera batik bat 2017an gertatu da, nagusiki aurreko paragrafoan adierazitako gastuen birsailkapenaren ondorioz.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Bi magnitudeek goranzko bilakaera erakusten dute, aurrezki garbiaren kasuan are nabarmenagoa dena, finantza zama txikiagoa delako. Zehatzago esanda, aztertutako aldian aurrezki garbia % 40 igo da eta aurrezki gordina, berriz, % 26.

Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboa erakutsi du aztertutako ekitaldi guztietan eta gainera, lehenengoan saldoak gaitortu egiten du sortutako aurrezki garbia. 2016ko ekitaldian joera itzulikatu egingo da aurrezki garbiak izan duen bilakaeraren ondorioz eta inbertsio errealeko gastuen murrizketaren ondorioz (% 16), eta 2017an sendotu egingo da joera aldaketa, nahiz inbertsio errealean kopurua berroneratu eta are igo ere egingo den 2015ekoaren aldean. Aztertutako aldi guztia aintzat hartuta, sortutako aurrezki garbia kapital eragiketa negatiboen emaitza baino handiagoa da.



Eragiketa ez-finantzarioen emaitza: Positiboa da aztertutako aldi osoan, eta gorakada handia izan du,% 282 ingurukoa.

Diruzaintza-geldikina: Hau ere positiboa izan da aldi osoan eta % 36tik gora hazi da.

Zorpetzea: % 54 egin du behera aztertutako aldian egindako amortizazioen ondorioz.

Ondorioa: Horrek guztiak Udala kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak dituela eta zorpetu beharrik gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko edo are, zorpetzearen egungo bolumena murrizteko moduan.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoaren eta gastuaren araua betetzen dela adieraziaz. Txostenak Udalari dagokionez honako hau jasotzen du 2017ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta:

- aurrekontuaren egonkortasun helburua bete dela, termino kontsolidatuetan eragiketa ez finantzarioen superabita izan baitu.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2016ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren barioak ez zuen gainditu Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziako hazkuntza tasa (% 2,1) egindako kalkuluen arabera.
- Zor publikoaren helburua bete da, 2017ko abenduaren 31ko zor biziak ez baitu 2016an kitatutako sarrera arrunten % 77 gainditu.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	1.212	-	1.212	1.241	1.088	153	% 102
2. Zeharkako zergak	A.3	24	-	24	9	8	1	% 38
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.095	34	1.129	1.356	1.061	295	% 120
4. Transferentzia arruntak	A.4	2.654	6	2.660	2.739	2.691	48	% 103
5. Ondare-sarrerak.....		18	-	18	3	3	-	% 17
6. Inbertsio errealak besterentzea.....		-	-	-	1	-	1	E/E
7. Kapital transferentziak	A.4	105	300	405	232	17	215	% 57
9. Pasibo finantzarioak.....		-	595	595	-	-	-	E/E
SARRERAK GUZTIRA		5.108	935	6.043	5.581	4.868	713(*)	% 102

(*) Exekuzioaren % kalkulazterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak.....	A.5	1.801	-	1.801	1.750	1.750	-	% 97
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ...	A.6	1.657	(176)	1.481	1.337	1.142	195	% 90
3. Gastu finantzarioak.....		5	7	12	6	6	-	% 50
4. Transferentzia arruntak	A.7	848	343	1.191	1.145	989	156	% 96
6. Inbertsio errealak	A.8	486	746	1.232	694	374	320	% 56
7. Kapital transferentziak	A.7	131	15	146	141	141	-	% 97
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	180	-	180	179	179	-	% 99
GASTUAK GUZTIRA		5.108	935	6.043	5.252	4.581	671	% 87

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER. ZORRA	KOBRA./ BALIOG.	AZKEN ORDAIN. ZORRA
Ordaintzeko dauden saldoak	486	-	312	174
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA		5		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	5.581
Obligazio aitortuak.....	(5.252)
AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA	329
AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA	5
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	334
Finantzaketako desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak	-
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	334

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak (A.12).....	2.050
Aitortutako eskubideengatiko zordunak (ikus A.10)	1.023
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.10)	19
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak (ikus A.11)	(845)
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.11)	(172)
Aplikatu gabeko kontu-sailak.....	-
DIRUZAINZAKO GELDIKINA GUZTIRA 2017.12.31N	2.075
Zalantza kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10).....	(213)
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza-geldikina	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA 17.12.31N	1.862
ZORPETZEA 17.12.31N (ikus A.9)	339



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2017	2016		ERANSKINA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		9.931	10.742	ONDARE GARBIA		11.450	11.791
Ibilgetu ez-materiala	A.8	111	13	Ekarritako ondarea.....		(3.277)	(2.341)
Ibilgetu materiala	A.8	9.813	10.722	Sortutako ondarea.....		14.474	14.091
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.8	-	-	Ondare hazk. egotzi gabeak		253	41
Finantza inbertsioak epe luz.	A.8	7	7				
				PASIBO EZ-ARRUNTA	A.11	276	341
				Epe luzeko zorrak		276	341
AKTIBO ARRUNTA		2.880	2.254	PASIBO KORRONTEA	A.11	1.085	864
Izakinak		1	1	Epe laburreko zorrak.....		312	381
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.10	827	644	Hartzed. eta ordain. bst knt b.		773	483
Finan. inberts. epe labur.....	A.10	2	-				
Eskud. eta best. akt. baliok. .	A.12	2.050	1.609				
AKTIBOA, GUZTIRA		12.811	12.996	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		12.811	12.996

2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2017	2016
Zerga sarrerak	2.338	2.424
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	2.759	2.625
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	21	23
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	57	68
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	5.175	5.140
Langileria-gastuak.....	(1.768)	(1.775)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(1.287)	(904)
Hornikuntzak.....	(1.318)	(1.572)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	-	-
Ibilgetua amortizatzea.....	(571)	(595)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(4.944)	(4.846)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	231	294
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk	195	15
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	426	309
Sarrera finantzarioak.....	-	15
Gastu finantzarioak.....	(6)	(3)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(37)	(4)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(43)	8
EKITALDIKO EMAITZA	383	317



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Zestoako Udala Administrazioiko toki erakundea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, arautua. Lege horiek artikulatuan udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen dituzte; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu horiek guztiak nagusiki hauen bitartez finantzatzen dira:

- Udal zergak.
- Berariaz aurrez aipatutako zenbait zerbitzu finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- Partaidetza itunpeko zergetan eta ez itunpekoetan.
- Ondare sarrerak
- Dirulaguntzak.
- Kreditu eragiketak

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2017ko ekitaldirako aurrekontua 2017ko apirilaren 6ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hil bereko 19an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2017ko maiatzaren 25ean eman zen argitara berriz GAOn.

Ondoren, 2017ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	uroak milakotan		
	KREDITU OSAGAR.	KREDITU TRANSF.	GUZTIRA
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa	(206)	30	(176)
3. Gastu finantzarioak.....	-	7	7
4. Transferentzia arruntak	333	10	343
6. Inbertsio errealak	793	(47)	746
7. Kapital transferentziak	15	-	15
GASTUAK GUZTIRA	935	-	935

Adierazitako aldaketak finantzatu ziren Diruzaintza-geldikinaren zati batekin 2016ko ekitaldi itxieran eta kapital-transferentzia bidez, hurrenez hurren 595.181 euroren eta 300.000 euroren zenbatekoan; baita, beste diru-sarrera txiki batzuekin ere.

Aurrekontuko aldaketa hauek % 18ko igoera eragin zuten eta hasiera bateko 5,1 milioi euroren aurrekontua izatetik 6 milioi euroren behin betiko aurrekontua izatera aldatu zen. Ekitaldian zehar aurrekontua aldatzeko 3 espediente izapidetu dira, guztiak ere Udaltzaren Osoko bilkurak onartutakoak. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Eguneko zentr. eta tutoretzapeko etxebizitzaren hitzarmena (4. kap.).....	290
Eguneko zentroa eta tutoretzapeko etxebizitzak (2. kap.)	(252)
Kiroldegia berritzea.....	470
Idiazpiko igogailua.....	200
Beste txiki batzuk.....	227
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	935

2017ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2018ko martxoaren 19ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2018ko ekainaren 28ko Udaltzaren bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2017ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreraren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	726
TMIZ	307
HILBIZ	36
JEZ.....	172
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	1.241
EIOZ.....	9
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	9
Ur hornidura eta estolderia	546
Etxeko bilketa eta zaborrak deuseztatzea eta HHS.....	330
Ekitaldi itxietako itzulketak	191
Eguneko zentroa eta tutoretzapeko apartamentuak.....	86
Lur/lur azpi/hegalaren erabilera pribatua edo aprobetx. berezia enpresa hornitzaileen alde.....	83
Beste txiki batzuk.....	120
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	1.356
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	2.606

GFAk Zestoako Udalarri OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko zerbitzuak ematen dizkio, bai borondatezko aldian, bai premiamendukoan, hasiera batean 1994an formalizatutako lankidetzeta-hitzarmenen indarrez.

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zergak, tasak eta sarrerak direla eta, Udalak bere gain hartua du horien kudeaketa bai borondatezko aldian bai premiamendukoan, nahiz diru-bilketa exekutiboari dagokionez, kanpoko eragile batek laguntzen dion aholkularitza, laguntza tekniko eta kooperazio lanetan.

2017ko azaroaren 29an Urola Erdiko Mankomunitateak erabaki zuen 500.000 euro gordetzea kudeaketarako eta gainerakoa eskatzen zuten udal mankomunitatei itzultzea, hala gertatuz gero. Erabaki horren ondorioz, Zestoak 189.716 euro eskuratu zituen, ekitaldi itxietako itzulketen kontu-saileko diru-sarrera nagusia dena.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2017ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalekoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZKOAK
Estatuko Administrazioetik	4	-
EAEtik	69	12
AO: GLL.....	45	-
AO: Hirigune.....	-	10
Bestelako txikiago batzuk.....	24	2
GLHtik	2.660	215
Zerga itunduetan partaidetza UFFF.....	2.360	-
GFA Kiroldetgia zaharberritzea.....	-	200
GFA Eguneko zentroa.....	199	-
GFA: Gizartekintza.....	48	-
GFA: Gizarte zerbitzuen funtsa.....	15	-
URKOME.....	-	15
Bestelako txikiago batzuk.....	38	-
Beste erakunde batzuetatik	6	5
GUZTIRA	2.739	232

FPEBk 2017ko urriaren 11n erabaki zuen lurralde historikoak 91,6 milioi euroren zenbatekoarekin konpentsatzea, 2017ko maiatzaren 17ko Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak hartutako erabakien eredura txertatzeak Euskadiko erakundeetan izan duen eragin ezberdina berdintzearen. GLHri 30,1 milioi euro zegozkion eta horietatik udalei 28 milioi euro esleitu zitzaizkien, 2017ko ekitaldiko Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren likidazioaren saldo negatiboaren pareko kopurua, zeinarekin berdindua geratu zena.

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZIO AITORT. 2017	OBLIGAZIO AITORT. 2016	LANPOSTU KOP.	
			LZ	PLANTILLA
Zinegotzien ordainsariak	80	79	E/E	2
Funtzionarioen ordainsariak	683	717	16	(*) 18
Lan kontratu finkoko langileen ordainsariak	160	161	11	7
Aldi baterako lan kontratuko lang. ordains.	400	399	E/E	19
Gizarte Segurantza	393	371		
Elkarkidetza	22	19		
Beste gizarte-gastu batzuk	12	10		
GUZTIRA	1.750	1.756	27	46

(*) 7 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

Ordainketak

Udalak 2017an ordaindutako ordainsariak % 1eko igoera izan zuten aurreko ekitaldiarekiko, 2017ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18.2 artikulua finkatzen duen mugaketa gordez.

LZ eta plantilla

2017ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioak	-	-
Langile lan kontratudun finkoak	-	-
Bitarteko funtzionarioak	4	4
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	36	36
Lanbide enplegu planak	2	2
Aldi baterako beste kontratazio batzuk	34	34
GUZTIRA	40	40

Aldi baterako kontratazioengatiko alta eta baja gehienak, 20 hain zuzen ere, uztailean hilabetetik beherako eperako kontrataturiko begiraleenak dira.



A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	OBLIGAZ.	AITORTUAK
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza		202
Azpiegitura eta ondas. orokorrak		127
Eraikin eta bestelako eraikuntzak		55
Beste ibilgetu bat		20
Bulegoko materiala		23
Hornidurak		529
Energia elektrikoa		171
Ura		307
Bestelako hornigaiak.....		51
Komunikazioak		63
Aseguru primak		34
Hainbat gastu		265
Jaiak eta ospakizunak		137
Kultur etxeko jarduerak.....		35
Euskara sustatzeko jarduerak		33
Bestelako hainbat gastu.....		60
Kanpoko enpresek egindako lanak		199
Turismoaren sustapena		40
Hirigintzako aholkularitza.....		35
Merkataritzako aholkularitza.....		22
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....		102
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak		22
GUZTIRA		1.337

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2017ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan	
	4. KAP. 7. KAP.	
TRANSFERENTZIAK	438	126
Urola Erdiko Mankomunitatea (2)	413	17
Gipuzkoako Uren Kontsortzioa (2)	-	109
Urola-kostako Landa Garapenerako Elkartea (URKOME) (2).....	10	-
Beste txikiago batzuk (3 erakunde).....	15	-
IZENDUNAK	179	15
Iraurgi Lantzen SA (2).....	55	-
San Juan Egoitza (2).....	33	15
Ertxiña Zestoako Musika Eskola Elkartea (2).....	32	-
Zestoako musika banda	19	-
Danbolin Zulo Kultur Elkartea.....	12	-
Eromen elkarte artistikoa	11	-
Beste txikiago batzuk (5 onuradun).....	17	-
HITZARMENAK	303	-
Erruki-etxe Santua Fundazioa zaharren San Juan Egoitza (2).....	290	-
Beste txikiago batzuk (5 onuradun).....	13	-
LEHIA	158	-
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (1) (2)	57	-
Kultur erakundeei dirulaguntzak (2)	39	-
Alokairu soziala.....	18	-
Kirol erakundeei dirulaguntzak (2).....	14	-
Gizartearen intereseko erakundeei dirulaguntzak	12	-
Beste txikiago batzuk (4 dirulaguntza lerro).....	18	-
ZUZENAK (32 onuradun)	48	-
BESTE BATZUK	19	-
GUZTIRA	1.145	141

(1) EAEk partzialki finantzaturako programa (ikus A.4).

(2) Aztertutako transferentzia eta dirulaguntzak.

2017ko apirilaren 26an Udalak hitzarmen bat izenpetu zuen San Juan egoitza Fundazioarekin eguneko zentroa eta bere lokaletan dauden tutoretzapeko etxebizitzak kudeatzeko; jada 2002az geroztik egiten zuen kudeaketa-lan hori. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan barne hartutako prestazio eta zerbitzuak emateko zela aintzat hartuta, egoki iritzi zitzaion zerbitzua hitzarmen baten bitartez formalizatzea eta gastuak transferentzia eta dirulaguntza arruntan kapituluan kontabilizatzea; aurrez ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa kapituluan erregistratzen ziren.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ ARRUNTA

Kontu Orokorraren arabera, hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2017ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				SALDOA 17/12/31
	SALDOA 17/01/01	ALTAK	BAJAK	AMORTIZ. ZUZKID.	
IBILGETU UKIEZINA	13	102	-	(4)	111
IBILGETU MATERIALA	10.722	-	(832)	(77)	9.813
Lursailak eta ondare naturalak	3.152	-	-	-	3.152
Eraikuntzak.....	5.264	-	-	(61)	5.203
Ondare historikoko ondasunak	6	-	-	-	6
Bestelako ibilgetu materiala	338	-	-	(16)	322
Uneko ibilgetu materiala eta aurrerakinak	1.962	-	(832)	-	1.130
IBILGETUKO INBERTSIOAK	-	-	-	-	-
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	-	-	-	-	-
EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK	7	-	-	-	7
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	10.742	102	(832)	(81)	9.931

Erantsitako taulan jasotako datuak ez datoz bat kontularitzako erregistroan daudenekin, inbentarioaren kudeaketa kontularitzaz kanpo egiten baita eta ekitaldi itxieran zuzentzen baitira balantzeko datuak, onartutako inbentarioaren azken eguneraketak ematen dituen datuetara egokitzeko; alabaina, badago alderen bat balantzeko saldoen eta aipatu inbentarioan azaltzen direnekin. Bestalde, ez dira ageri aktibo ez arruntean erabilera orokorrera emandako ondasunak, zeinak ondare garbitik murrizten baitira. Komeni da esatea taulan islatutako bajak direla indarrean den ibilgetua erabilera orokorrera emandako ibilgetura aldatutakoak. Altak, berriz, ez datoz bat inbertsio errealean kapituluaren erregistratutako gastuekin eta ez dago alde horien justifikaziorik.

Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasunak ere ez dira balantzeko idazpuru bereizi batean kontabilizatzen, ez baitago horien inbentarioa besarkatuko duen ustiaketa erregistrorik.

A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

	% INTERESA	IRAUNG.	Euroak milakotan				
			HASIERAKO SALDOA	SALDOA 16/12/31	AMORT.	SALDOA 17/12/31	
Kutxabank SA.....	Euriborra 3M + 0,2	2017	600	38	38	-	-
Kutxabank SA.....	Euriborra 3M + 0,2	2017	900	77	77	-	-
Kutxabank SA.....	Euriborra 3M + 0,2	2020	225	60	18	-	42
Kutxabank SA.....	Euriborra 3M + 0,7	2024	308	219	30	-	189
BBVA SA.....	Euriborra 3M + 1,2	2024	201	124	16	-	108
BANKU-MAILEGUAK (Ikus A.11)				518	179		339



A.10 ZORDUNAK ETA AKTIBO KORRONTEKO BESTE KONTU-SAIL BATZUK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta beste kontu batzuen saldoen xehakapena, 2017ko ekitaldi itxieran:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	AURREK. ZORDUNAK	ZORDUN EZ AURREK.	SALDOA 17/12/31
Zordunak eta kobratz. bste knt. btzu e/lab.....	808	19 (*)	827
Epe laburreko finantza-inbertsioak.....	2	-	2
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	810	19	829

(*) Eragindako BEZarengatik zordunak

Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehakapena:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	2014 eta lehen.	2015	2016	2017	GUZTIRA
Zerga zuzenak	-	-	39	153	192
Zeharkako zergak	-	-	1	1	2
Tasak eta bestelako sarrerak	23	33	52	295	403
Transferentzia arruntak	-	5	5	48	58
Ondare-sarrerak	73	-	-	-	73
Inbertsioen besterentzea	-	-	-	1	1
Kapitaleko transferentziak.....	79	-	-	215	294
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	175	38	97	713	1.023
Kredituen balioaren narriadura epe laburrera					(213)
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA, NARRIADURA KENDUTA					810

21/2003 F Aren 48.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak nekez kobragarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.11 HARTZEKODUNAK

Hona hemen Balantzeko pasiboko kontuen 2017ko abenduaren 31ko xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	PASIBO ARRUNTA	PASIBO EZ ARRUNTA	GUZTIRA 17/12/31
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	170	2	172
Jasotako fidantzak eta gordailuak	20	2	22
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzekoduna	66	-	66
BEZ kontzeptuan ogasun publikoa hartzekoduna	9	-	9
Gizarte Segurantza hartzekoduna	40	-	40
Elkarkidetza	6	-	6
Jasandako BEZagatiko hartzekodunak	13	-	13
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak.....	16	-	16
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	845	-	845
BANKUKO ZORPETZEA (ikus A.9)	65	274	339
SARRERAK ITZULTZEAGATIKO HARTZEKOD.	5	-	5
PASIBOA GUZTIRA	1.085	276	1.361

A.12 DIRUZAINNTZA

Ekitaldi itxieran Udalaren Diruzaintza honako xehakapenaren arabera zegoen osatua:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	SALDOA 17/12/31	
Kutxa	-	
Kontu korronteak	950	
Eperako ezarpenak	1.100	
GUZTIRA	2.050	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Diputatuen Kontseiluak 1996ko maiatzaren 28ko bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Zestoako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen testuategina, nahiz erabakiak berak behin betiko onespenez hori eteten zuen Osinbeltzeko harrobiak eragindako lurzoru ez urbanizagarriaren eremuari dagokionez (1996ko irailaren 30eko GAO). Etendurak iraun zuen harik eta 2002ko uztailean Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen behin betiko onartzea eremu horri zegozkion Zestoako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen testuateginaren zehaztapenak. Orduz geroztik igarotako aldirian, berebat, zenbait aldaketa jakin onartu dira, jarduera unitate batzuetan eragina izan dutenak.

Udalerrriaren HAPO idazketa fasean dago, Udaltzatzen 2018ko otsailaren 28an hartu baitzuen laguntza teknikoa, aholkularitza eta idazketa-lanak behin betiko esleitzeko erabakia, 206.886 euroan.

Ekaingo haitzuloaren erreplika egiteak eta futbol zelai bat egokitzeko proiektuak ukitutako lursailen gaineko hitzarmenak.

1999 eta 2000ko urteen artean Udalak hiru hitzarmen izenpetu zituen zenbait lursailen jabearen oinordekoekin eta, besteak beste, honako konpromisoak beretu zituen:

- Lursail bat erostea, zeinetan futbol zelai bat egitea aurreikusia zegoen.
- Ekaingo haitzuloaren erreplika egiteko zenbait lursail erostea.
- Hitzarmena izenpetu zuenetako bati lana ematea Ekaingo erreplika egiteko lanak amaitu arte, eta behin amaituak zirela, bermatu Udalak edo Fundazioak kontratatuko zuela. Hitzarmenak, berebat, pertsona hori Udalaren plantillan gelditzeko legezko bermea jasotzen zuen, baldin eta fundazioa desegino balitz.
- Ordain jakin bat ordaintzea erreplika eraikitze lanak egiteko denboran lursail batzuk aldi batean okupatzeagatik.

2017ko irailean, hirugarren atalean aipatu dugun pertsonak 595.058 euroren demanda jarri zuen Udalaren aurka, Udalak hartutako konpromiso guztiak bete gabe utzi zituela iritzita. 2019ko urtarrilean Administrazioarekiko auzi errekurtsioan epaia ebatzi da, zeinak demanda baietsi baitu, salbu eta Udalak erreplika egiteko erositako lursailei dagokienez, hartutako konpromisoak betetzat jo baititu. Hain zuzen ere, Udala kondenatzen du:

- 410.679 euro ordaintzera, lanpostu bat emateko obligazioa ez betetzeagatik.
- Lursaila erostera, non futbol zelaia egitea aurreikusi baitzen, 57.150 euro gehi 31.604 euroren zenbatekoan, legezko interesen kontzeptu pean.
- 7.719 euro ordaintzera, ordaindu gabeko alokairuen kontzeptu pean.

Epaia jasotzen du, gainera, adierazitako kopuruek dagozkien legezko interesak sortuko dituztela. Udalak apelazio-errekurtsioa jarri du.



A.14 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu Udalak esleitutako ondasun arrunt eta zerbitzuetako eta inbertsioetako gastuen lau kontraturen lagin bat hartuta:

KONTRATUA	AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK					Euroak milakotan	
	DATA	ESLEIPENA		GASTUA 2017	AKATSAK		
		PROZED.ZENBATEKOA			A	B	
OBRAK							
1. Udal kiroldedia berritu eta handitzea	urr-17	Irekia	1.561	202	A3,4	B1	
ZERBITZUAK							
2. Arkitekto baten zerbitzuak kontratatzea	abe-16	PGPN	36	36	A1,2,3		
3. Kiroldegiko lanak egiteko proiektua idaztea.....	mai-17	PGPN	72	72	A3		
4. Idiazpiko igogailuko lanen oinarritzko proiektua, exekuzioa eta obra zuzendaritza.....	mai-17	PGPN	51	36	A3		
UDALA GUZTIRA			1.720	346			

AKATSAK	Euroak milakotan	
	ESLEIPENAREN ESPEDIENTE KOP.	ZENBATEKOA
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA		
1. Kontratu PGPN bidez tramitatzea, lizitazioari publikotasuna eman behar zitzaiokeela	1	36
2. Kanpora atera ezin daitezkeen prestazioak hartzen dituen kontratua	1	36
3. Kontratazio Mahaiaren osaeran akatsak.....	4	1.720
4. Pleguen espezifikazioetan akatsak.....	1	1.561
B EGIKARITZA		
1. Kontratu betetzean atzerapenak eta aldaketa garaiz kanpo onartzea	1	1.561





ZESTOAKO UDALAREN 2017. URTEALDIRAKO FISKALIZAZIO LANAREN ONDORIO TXOSTENARI BURUZKO ARRAZOIBIDEAK

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Honen inguruan honako hau adierazten duzue: *“Kontratuaren xedea, gainera, eraginpeko administrazio-unitateko plantilla organikokoak diren lanpostuen euren egitekoak ziren eta esleipenduna egiteko horiek 2014az geroztik ari zen betetzen, lehenagoko kontratu baten indarrez.”*

Deialdi horren objektua, beharrezkoa den arkitekto baten aholkularitza eta asistentzia zerbitzuak kontratatzea da, Udala izanik, bere eskumenean dauden konpetentzien eta azkeneko instantzian erabakiko duena nola egikariturako duen bere autoritatea.

Aldi berean jakinarazten dizuegu Zestoako Udala hasi dela aztertzen era zehatz eta sakon batean karrerako funtzionario plaza bat sortzea arkitekto postuarekin lotutako funtzioentzat.


2.- Bestetik, honako hau aipatzen duzue: *“Kiroldegia berritu eta handitzeko obren zuzendaritza tekniko eta obra zuzendaritza bera bereizirik lizitatu eta kontrataluziren, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez, hurrenez hurren 44.528 euroren eta 48.098 euroren zenbatekoan. Bereizirik erabili edo ustiatzerik ez dagoenez gero, bi prestazioak batera kontratatu behar ziratekeen eta ezinezkoa da publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetzea (SPKLTBTen 86.3 artikulua).”*

Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legeak, obren zuzendaritza tekniko eta obra zuzendaritza lanpostuak ezberdintzen ditu bere 12 eta 13.artikuluen bitartez, bi lanpostuak argi eta garbi bereiziz, beren funtzio eta erantzukizunen arabera.

Artikulu hauen arabera, obra zuzendaritza, obraren zuzendaria da, zuzendaritza fakultatiboko kide izanik, obraren alderdi tekniko, urbanistiko, estetiko eta ingurugirokoak garatzen ditu proposatutako helburura egokitzen dela ziurtatzeko.

Obren zuzendaritza teknikoak aldiz, obraren exekuzio materiala zuzentzeko eta eraikitakoaren eraikuntza eta kalitatea kuantitatiboki kontrolatzeko eginkizun tekniko bere gain hartzen duen agentea da.

Ondorioz, bi lanpostu hauen bereizketa argiturik, SPLTLBren 169 eta ondorengo artikuluetan oinarrituz aukera zegoen lanpostuak bereizik lizitatu eta kontratatzea (SPLTLBren 86.3.artikuluaren bigarren paragrafoa).





ABREVIATURAS

AG	Administración General.
BOG	Boletín Oficial de Gipuzkoa.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CVFP	Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
DA	Disposición Adicional.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
FFFM	Fondo Foral de Financiación Municipal.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.
LFPV	Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
NF 1/2013	Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa.
NF 21/2003	Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
NNSS	Normas Subsidiarias.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
PCAP	Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.
PIB	Producto Interior Bruto.
PPS	Patrimonio Público de Suelo.
PNSP	Procedimiento Negociado Sin Publicidad.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
THG	Territorio Histórico de Gipuzkoa.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
UEMA	Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea.





I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Zestoa para el ejercicio 2017.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

